



IKUSI DIREN FIKZIOZKO AZKEN EDUKIAK ETA HIZKUNTZAK

2020ko abendua

IKUSI DIREN FIKZIOZKO AZKEN EDUKIAK ETA HIZKUNTZAK

Ikusiker Panela osatzen duten UPV/EHUko eta UPNAko ikasleei galdetu diegu azkena ikusi dituzten fikziozko edukiei buruz. Era berean, ikus-entzunezkoak estuki lotuta daude hizkuntzarekin, eta konbinazio anitzak gertatu daitezke kontsumitzen diren ikus-entzunezkoen hizkuntza-hautuen atzean. Ere horri buruzko ezagutza areagotu nahi izan dugu inkesta honekin.


1. Ohar metodologikoak

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen-linformazio eta Komunikazio Teknologien erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak.

Txosten honetan aurkituko dituzu 2020ko abenduaren 3tik 9ra bitartean luzatutako galdera-sortaren emaitzak. Jasotzen duen informazioa da ikusitako fikziozko azken edukiei buruzkoa, eta erabili diren hizkuntzei buruzkoa.


Ikasleek ikusitako azken fikziozko edukiaren inguruko xehetasunak laburbilduz, inkestaturen ia bi herenek edukia streaming bidezko plataforma batean (Netflix, HBO, Amazon...) ikusi dute eta erdiek baino gehiagok eduki hori ikusten ordubetetik gora pasatu dute.

1. Irudia – Azkeneko fikziozko edukia non ikusi zenuen?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko abendua


2. Irudia – Aukeratu duzun fikziozko azken eduki hori ikusten zenbat denbora egon zinen?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko abendua


Hizkuntzari dagokionez, inkestatuen %63,2ak jatorrizko hizkuntza ingelesa duten edukiak ikusi dituzte, baina era berean gehienek gaztelaraz kontsumitu dute azken eduki hori.

3. Irudia – Aipatzen ari zaren fikziozko eduki horren jatorrizko audioa zein hizkuntzan zegoen (bertsio orijinala)?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko abendua


4. Irudia – Audioari dagokionez, zuk zein hizkuntzan ikusi zenuen fikziozko azken eduki hori?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko abendua

Azpituluei dagokionez, Inkestatuen %31,9k erabili ditu, gehienbat gaztelaraz eta ingelesez.

5. Irudia – Ikusi duzun fikziozko azken saio hori, azpitulatuta ikusi bazenuen, zein hizkuntzan aukeratu zenituen subtítuloak?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko abendua